Osakidetza

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA

**RESOLUCIÓN N.º 338/2015, DE 24 DE ABRIL, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE ACUERDA FINALIZAR EL PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO INICIADO POR RESOLUCIÓN Nº 895/2014, DE 9 DE JULIO, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA, POR LA QUE SE CONVOCÓ LA PROVISIÓN, MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO, DEL PUESTO DE JEFE DE SERVICIO DE DERMATOLOGÍA.**

## ANTECEDENTES DE HECHO:

**PRIMERO**.- Mediante Resolución nº 2646/2012, de 22 de noviembre, del Director Gerente del Hospital Universitario Araba se convocó la provisión, mediante el sistema de concurso, del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología del Hospital Universitario Araba.

**SEGUNDO**.- Por Resolución n.º 1364/2013, de 30 de octubre, del Director Gerente del Hospital Universitario Araba, se acordó declarar desierta la convocatoria para la provisión del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología, realizada por resolución nº 2646/2012, de 22 de noviembre, del Director Gerente de este Hospital.

**TERCERO**.- Dada la conveniencia de estabilizar las funciones del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología y encontrándose vacante, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acordó realizar una convocatoria pública para la provisión del citado puesto, por el procedimiento de concurso.

Por Resolución nº 895/2014, de 9 de julio, del Director Gerente del Hospital Universitario Araba, se ha procedido a convocar la provisión, mediante el sistema de concurso, del referido puesto funcional.

**CUARTO**.- Frente a la Resolución 1364/2013, de 30 de octubre, del Director Gerente del Hospital Universitario Araba por la que se acordó declarar desierta la convocatoria para la provisión del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología, Dª María Victoria Almeida Llamas interpuso recurso-contencioso administrativo que fue tramitado por el Juzgado Contencioso-Administrativo nº 3 de Vitoria-Gasteiz por el procedimiento abreviado con el nº 115/2014.

Con fecha 6 de febrero de 2015 se dictó Sentencia nº 30/2015 cuyo FALLO establece: "*Que, estimando en parte el recurso contencioso-administrativo PAB número 156/2014, interpuesto por la representación procesal de Doña María Victoria Almeida Llamas, contra la Resolución 1364/2013, de 30 de octubre, del Director Gerente del HUA que acuerda dejar desierta la convocatoria para la provisión del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología del HUA, que se anula, por considerar no ajustada a derecho la actuación administrativa, y declaramos que la recurrente Doña María Victoria Almeida Llamas es la seleccionada por el Tribunal y debe ser considerada su*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*propuesta para el nombramiento por la autoridad que corresponda. Todo ello sin imposición de costas a ninguna parte*"

**QUINTO**.- Por Resolución nº 336/2015, de 24 de abril, del Director Gerente del HUA se ha procedido a ejecutar la Sentencia nº 30/2015, de 6 de febrero y se ha acordado "*En cumplimiento del fallo de la Sentencia nº 30/2015, de 6 de febrero, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Vitoria-Gasteiz TENER POR EFECTUADA por el Tribunal del procedimiento para la provisión, mediante concurso, del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología convocado mediante Resolución nº 1648/2012, de 22 de noviembre, PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO a favor de Dª MARÍA VICTORIA ALMEIDA LLAMAS*" **y** "*Ordenar la continuación de los trámites del procedimiento administrativo para la provisión del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología del Hospital Universitario Araba, tomando en consideración la propuesta señalada en el punto anterior*".

**SEXTO**- Por Resolución nº 337/2015 de 24 de abril se ha procedido a nombrar a Dª María Victoria Almeida Llamas Jefe de Servicio de Dermatologia del Hospital Universitario Araba

## FUNDAMENTOS DE DERECHO:

**PRIMERO**.- Quien esto resuelve es competente para ello en virtud de lo establecido en el artículo 15 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público "Osakidetza-Servicio vasco de salud", el cual dispone que "Al frente de cada organización de servicios sanitarios del Ente Público se encontrará un Director-Gerente a quién le corresponderá ostentar la jefatura de personal en su organización y ejercer al respecto las competencias de contratación y de gestión en materia de personal".

**SEGUNDO**.- Los antecedentes de hecho de la presente resolución evidencian la imposibilidad material de continuar el procedimiento administrativo iniciado mediante la Resolución nº 895/2014, de 9 de julio, en tanto que para ocupar el puesto objeto de la convocatoria ha sido nombrada Dª Victoria Almeida Llamas, en ejecución de Sentencia firme.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 87 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Comun procede la terminación del procedimiento por imposibilidad material de continuarlo por causas sobrevenidas.

Por cuanto antecede y de acuerdo con las competencias legalmente atribuidas, esta Dirección

**ACUERDA:**

**PRIMERO**.- Finalizar el procedimiento administrativo iniciado por Resolución nº 895/2014, de 9 de julio, del Director Gerente del Hospital Universitario Araba, por la que se convocó la provisión, mediante el sistema de concurso, del puesto de Jefe de Servicio de Dermatología, por imposibilidad material de continuarlo por causas sobrevenidas

**SEGUNDO**.- Notifíquese la presente Resolución a los interesados en el procedimiento y dese a la misma la publicidad prevista en la Resolución de convocatoria.

**TERCERO**.- Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes ante el Director General de Osakidetza, al amparo de lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 255/1997, por el que se aprueban los Estatutos del Ente Público, y lo dispuesto en la Ley de Régimen de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gazteiz, a 24 de abril de 2015

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DE ARABA
ZUZENDARITZA KUDEATZAILETZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Fdo.: **Dr. Jesus LARRAÑAGA GARITANO**
**DIRECTOR GERENTE**

**338/2015 EBAZPENA, APIRILAREN 24KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ERABAKITZEN DUENA AMAITZEA ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEAK UZTAILAREN 9AN EMANDAKO 895/2014 EBAZPENAREN BITARTEZ HASITAKO ADMINISTRAZIO PROZEDURA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDI BAT EGIN BAITZEN DERMATOLOGIAKO ZERBITZUBURU POSTUA LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO.**

## AURREKARIAK:

**LEHENA**.- Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerenteak azaroaren 22an emandako 2646/2012 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Arabako Unibertsitate Ospitaleko Dermatologiako zerbitzuburu-postua lehiaketa bidez betetzeko.

**BIGARRENA**.- Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerenteak urriaren 30ean emandako 1364/2013 Ebazpenaren bitartez, erabaki zen Dermatologiako zerbitzuburu-postua eman gabe uztea, zeinaren deialdia azaroaren 22ko 2646/2012 Ebazpenaren bitartez egin baitzuen ospital horretako zuzendari gerenteak.

**HIRUGARRENA**.- Dermatologiako zerbitzuburuaren eginkizunak egonkortzea komeni denez baina postu hori betetzeke dagoenez, lanpostu hori lehiaketa bidez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuen Zuzendaritza Gerentzia honek, honako hauen arabera: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komuna; 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituena; eta 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerenteak uztailaren 9an emandako 895/2014 Ebazpenaren bidez, lanpostu hori lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin da.

**LAUGARRENA**.- María Victoria Almeida Llamas andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zion Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerenteak urriaren 30ean emandako 1364/2013 ebazpenari, zeinaren bidez erabaki baitzen Dermatologiako zerbitzuburu-postua eman gabe uztea, eta errekurtso hori Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak izapidetu zuen, 115/2014 zenbakiaz laburbildutako prozeduraren bidez.

2015eko otsailaren 6an, 30/2015 Sententzia eman zen, eta haren EPAITZAK honela dio: "*Ezen, hein batean aintzat hartuz 156/2014 zenbakiaz laburtutako administrazioarekiko auzi-helegitea, María Victoria Almeida Llamas andrearen prozesuko ordezkaritzak aurkeztu zuena AUOko zuzendari gerenteak urriaren 30ean emandako 1364/2013 Ebazpenaren kontra —zeinaren bidez erabaki baitzen AUOko Dermatologiako zerbitzuburu-postua eman gabe uztea—, baliorik gabe geratu dela ebazpen hori, administrazio-jarduketa zuzenbideari egokitzen ez zaiolakoan; beraz, adierazten dugu Auzitegiak María Victoria Almeida Llamas errekurtsogilea hautatu duela eta kontuan hartu behar dela haren proposamena, dagokion agintariak izenda dezan. Hori dena, ezein alde kostuak ordaintzera behartu gabe*".

**BOSGARRENA**.- AUOko zuzendari gerenteak apirilaren 24an emandako 336/2015 Ebazpenaren bidez, otsailaren 6ko 30/2015 Sententzia betearazteari ekin zaio, eta honako hau erabaki da: *"Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak otsailaren 6an emandako 30/2015 Sententziaren epaitza betetze aldera, EGINTZAT JOTZEA prozedurako Auzitegiak IZENDAPEN-PROPOSAMEN BAT egin duela MARÍA VICTORIA ALMEIDA LLAMAS andreak Dermatologiako zerbitzuburu-postua bete dezan, zeinaren lehiaketa bidezko deialdia azaroaren 22ko 1648/2012 Ebazpenaren bitartez egin baitzen"*. Orobat erabaki da *"Arabako Unibertsitate Ospitaleko Dermatologiako zerbitzuburu-postua betetzeko administrazio-prozeduraren izapideekin jarrai dadin agintzea, aurreko puntuan zehaztutako proposamena aintzat hartuz"*.

**SEIGARRENA**- Apirilaren 24ko 337/2015 Ebazpenaren bitartez, María Victoria Almeida Llamas andrea izendatu da Arabako Unibertsitate Ospitaleko Dermatologiako zerbitzuburu.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

**LEHENA**.- Hala ebatzi duenak horretarako eskumena du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera, zeinaren 15. artikuluak xedatzen baitu "ente publikoko zerbitzu-erakundeetan zuzendari-kudeatzaile bana" egongo dela, eta "erakundeko langileriaren buru izatea, eta hori dela-eta, Osakidetzako langileriaren arloko kontratazioa eta kudeaketa eramatea" egokituko zaiela.

**BIGARRENA**.- Ebazpen honen aurrekariek agerian uzten dute ez dagoela modurik uztailaren 9ko 895/2014 Ebazpenaren bidez hasitako administrazio-prozedurarekin jarraitzeko; izan ere, Victoria Almeida Llamas hautatu dute deialdi horretako lanpostua betetzeko, Sententzia irmoa betetzeko.

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 87. artikuluan ezarritakoarekin bat, prozedura amaitzea dagokio, ezin baita harekin jarraitu, gerora sortutako arrazoiak direla medio.

Beraz, aurretik azaldutakoarengatik eta legeak emandako eskumenez baliaturik, Zuzendaritza honek

## ERABAKTZEN DU:

**LEHENA**.- Amaitzea Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerenteak uztailaren 9an emandako 895/2014 Ebazpenaren bidez hasitako administrazio-prozedura —zeinaren bitartez egin baitzen Dermatologiako zerbitzuburu-postua lehiaketa bidez betetzeko deialdia—, gerora sortutako arrazoiak direla-eta ezin delako prozedurarekin jarraitu.

**BIGARRENA.**- Ebazpen hau prozedurako interesdunei jakinarazi behar zaie, eta deialdiaren ebazpenean ezarritako iragarpenak egin behar dira.

**HIRUGARRENA.**- Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, haren kontra, gora jotzeko errekurtso bat aurkeztu ahalko zaio, hilabeteko epean, Osakidetzako zuzendari nagusiari, honako hauetan ezarritakoaren arabera: batetik, entitate publikoko estatutuak onesten dituen 255/1997 Dekretuaren 5. artikulua, eta, bestetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko apirilaren 24an.

Zuzendari gerentea

Osakidetza
ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DE ARABA
ZUZENDARITZA KUDEATZAILETZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Sin.: Jesús Larrañaga Garitano.